



Antxiñako fotografia



San Juan-sendorrak San Juan kalen

Sakon zuztartetako ohituria da Oñatin landaraz, loraz eta frutuz modututako **sendorrak** San Juan egunian eliza edo ermita batera bedeinkaketara eruatia. Auskalo noiztik datorrena eta orainddiok be indartsu irauten dauena. Udiaren hasierako egun magiko horreitan aukera eta elejixa haundixa egoten da sendorra osoketako. Dana dala, tradiziñuari jarraitu ezker, elementu jakin batzuk ebali bihar izaten dira horretarako: **ezpatriñak, erbasantia, errudia, ahafixua, sanjuan-bedarrak, sanjuantxuak, kerizak** edota **makatzak**, bestiak beste.

Landara-sorta ederra eta usaintsua izaten da Sanjuanetakua. Bedeinkatu eta gero, ezta zakarretara botaten; etxeko balkoian ifintten da, leku agirixan. Orain eztaikit, baiña lehenago hurrengo urteko Sanjuanak arte gordeten zan eta bezperako sutara jaurtitten zan, beste gauza askorekin batera, garbiketa- eta barrizketa-erritu baten barruan. San Juan egunian, gaiñera, jente askok hartzen eben, bedarretan etzindda, **goizeko iñuntza**, osasunerako ona zalakuan. San Juan goizian be prozosiñuan faten ziran parrokiatik Garagaltzako ermittaraiño, San Juan kaletik eta Leintzerako kaltzada zaharrian gora: parrokiako abadiak, San Juanen kofradixakuak kandelakin eta txistularixak igoten euen prozosiño horretan San Juanen ermittaraiño.

Argazkixan agiri diran umiak sendorrak bedeinkatu ondoren ikusten dittugu, seguru asko San Juan kalen auzoko jaixetarako jasoten zan arkuaren azpizan. Lurrian ezkerretara daguen huntz-erramiak hori pentsau eragitten dosku. Ume gehixenak kale horretan jaixo edo bertan bizi ziran. Eskumako neskatxua, Kamaramuñoko Manttoni, parian suertako zan, esniak bezeruai partidu eta ogixak astabanastan kargauta baserrira oiala. Ezkerretik eskumara honeitxek dira neskatilla-mutikuon izenak:

Goiko illaran: **Bittori Urtaza**, Kirriñena; **Begoña Goitia**, Araotzeko Gernetako Handikoetxekua, orduan Altzelai senidiakin Denda Barri izeneko etxian bizi zana; **Antonio** eta **Jexux Erostarbe** anaiak, Silbestrenak;

Beheko illaran: **Juan Mari Murua**, Bixente eta Juanitaren semia, Enterradorianian egoten zana; **Laura Kernstock**, Alemanena; **Mila Iartza**, Otxuenekua; **Mari Karmen Urtzelai**, San Juan kaleko Sindikakua; eta azkenengo honen atzian **Susana** eta **Pili Anduaga** ahizpak, Santa Anakuak.

Ertzetan: Kirriñeneko **Juan Kruz Urtaza** eta Kamaramuñoko **Manttoni Arkauz**.

J. E.

Fotografia 1959xan atara eben Rafael Kernstock-ek. Argibide gehixenak Axun eta Mertxe Dorronsorok eskuratu doskue. Bittori Urtaza, Koldo Zumalde eta Roberto Altunari be xehetasun batzuk zor dostegu. Milla esker danoiri!